

Genero-berdintasunaren eta nesken eta emakumeen ahalduntzearen alde

Emakumeek eta neskek munduko biztanleriaren erdia ordezkatzen dute, eta, beraz, biztanleriaren ahalmenaren erdia. Gainera, gizarteko lehen mailan daude, eta bizi diren komunitateak aldatzeko gaitasun handienak biltzen dituzte bakarka nahiz taldean.

Hala ere, generoen arteko desorekak bere horretan eusten dio mundu osoan, eta gizartearen aurrerapena geldiarazten du.

Horregatik, 2030. urtearen aurretik Garapen Iraunkorrerako Helburuak lortu nahi baditugu, funtsezkoa da genero-arrakala guztiak ixtea eta eskubide berak bermatzea nesken eta emakumeentzat hezkuntza, osasuna eta kalitatezko enplegua eskuratzeko orduan.

Horrela, ekonomia sendoagoak eta gizarte bidezkoagoak eraiki ahal izango ditugu, eta aukera-berdintasuna errealitate hurbilagoa izango da pertsona guztiontzat.

Orain eta beti, neskek eta emakumeak direlako aldaketaren protagonistak.

GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK

5 GENERO-BERDINTASUNA

Genero-berdintasunaren eta nesken eta emakumeen ahalduntzearen alde



ORAIN ETA BETI aldaketaren protagonistak



POBREZIAREN FEMINIZAZIOA

Pobrezia eta generoa lotuta daude. Emakumeek eta neskek pairatzen dituzte gehien gosearen, klima-aldaketaren, krisi ekonomikoen edo gatazka armatuen ondorioak. Oro har, mundu osoan emakumeen bizitzak hobetzen ari direla ematen badu ere, zenbakiek beste zerbaite esaten dute.

- ▶ 5 nesketatik 1 muturreko pobrezia-egoeran bizi da munduan
- ▶ Herrialdeen ia bi herenetan, emakumeek elikaduraren arloko segurtasun eza pairatzeko probabilitate handiagoa dute gizonek baino
- ▶ Emakume dibortziatuek pobre izateko duten arriskua gizon dibortziatuek dutena baino bi aldiz handiagoa da



HEZKUNTZA ARRAKALA

Neskak nerabazarora iristen diren heinean, generoen arteko desorekak areagotu egiten dira. Herrialde askotan, **zailtasunak dituzte oraindik matrikulatzeko, bai Lehen Hezkuntzan bai Bigarren Hezkuntzan.** Hala ere, emakumeek kalitatezko hezkuntza eskuratzea funtsezkoa da ekonomia oparagoak eraikitzeko eta beren familien bizi-kalitatea hobetzeko.

- ▶ Eskola-adinean dauden 15 milioi neska ez dira eskolara joaten (mutilak baino %50 gehiago)
- ▶ Garapenean diren herrialdeetan, Lehen Hezkuntza hasten duen bost nesketatik batek ez du amaitzen
- ▶ Zientzien arloko profesionalen %30 soilik dira emakumeak mundu osoan



DISKRIMINAZIOA

Toki guztietan gertatzen da genero-diskriminazioa: enpresetan, kirolean, hezkuntza-erakundeetan, erakunde politikoetan, etxebizitza bat bilatzerakoan edo mailegu bat eskatu behar dugunean. **Genero-diskriminazioa bidegabea da beti,** eta ondorio negatiboak ditu bizitza publiko zein pribatuko eremu guztietan.



- ▶ 18 herrialdetan, gizonek legez eragotz diezaiekete emazteei lan egitea
- ▶ 39 herrialdetan, semeek eta alabek ez dituzte oinordetzako eskubide berak
- ▶ Nekazaritzako lurren %13 baino gutxiago dira emakumeen jabetzakoak



LAN ARRAKALA

Emakumeen ahalduntzea funtsezkoa da **garapen ekonomikoa bultzatzeko eta gizartearen garapena sustatzeko.** Adibide bat: emakumeek lan-alorrean parte-hartze osoa izango balute, puntuak erantsiko lizkieke herrialdeen hazkunde ekonomiko tasa gehienen ehunekoei; kasu askotan, 2 puntu.

- ▶ Espainian, emakumeek gizonek baino ia %20 gutxiago irabazten dute lan bera egin arren
- ▶ 50 milioi emakume baino gehiago dira munduan etxeko langile, eta %10ek baino ez du lortu bere lan-eskubideak arautzea
- ▶ Emakumeek gizonek baino 3 aldiz denbora gehiago eskaintzen diete ordaindu gabeko etxeko lanei eta zainketei



GENERO-INDARKERIA

Neskek eta emakumeek, neska eta emakume izate hutsagatik, indarkeriazko egoera ugari egin behar izaten diete aurre. **Bortxaketen eta sexu-erasoen** kopurua handitzen ari da etengabe, eta oraindik ez dira desagertu emakume-trafikoa eta sexu-esplotazioa, ez eta bestelako ohitura onartezinak ere, hala nola **haurren ezkontza**, behartutako ezkontzak eta **emakumeen genitalen mutilazioa.**



- ▶ Mundu osoko emakumeen %35ek indarkeria fisikoa edota sexuala pairatu dute
- ▶ 130 milioi neskek eta emakumek baino gehiagok mutilazio genitalaren moduren bat jasan izan dute Afrikako eta Ekialde Ertaineko 29 herrialdetan
- ▶ 12 milioi neska ezkontzera behartzen dituzte urtero

OSASUNAREN ARLOKO ARRAKALA

Lotura nabaria dago sexu-osasunaren eta ugalketaren artean eta giza eskubideen eta garapen iraunkorraren artean. Emakume pobreek, gazteenek batez ere, **nahi gabeko haurdunaldi** gehiago izaten dituzte, **abortu arriskutsu** gehiago, amen hilkortasun-tasa handiagoa eta **sexu-transmisiozko infekzio gehiago.** Eta garapen-bidean diren herrialdeetan, kopuru horiek biderkatu egiten dira.

- ▶ Minutu bakoitzean, emakume bat hiltzen da munduan haurdunaldian edo erditzean, prebentzio-neurriekin saihestu zitezkeen kausengatik
- ▶ Heriotza horien %99 garapen-bidean diren herrialdeetan gertatzen dira
- ▶ Munduan HIESarekin bizi diren 33 milioi pertsonen erdia baino gehiago emakumeak edo neskak dira

